

GURE TALDEAREN ENPRESA IDEIA



NikNiri taldeak enpresa ideia definitzeko...

Aritz Sagarna
Itoitz Salaberria
Xabier Zamora
Olatz Sanchez



NikNiri taldeko proiektuaren aurkezpena da jarraian datorrena. Lau kidek osatutako taldea da eta ideia berritzaileekin gatoz. Gure helburua, inguruan nabaritzen ditugun hutsune eta gabeziak estaltzen saiatzea da.

Gaur egungo gizartean denetarik aurki dezakegu, baita inoiz imajinatu ez ditugun gauzak ere. Baina badira gauza dezente faltan botatzen ditugunak edo hobetu beharko liratekeenak, esaterako; autobus urbanotan zaborrontziak jartzea; unibertsitate eta eskoletan inprimatzeko eta koadernatzeko inprimagailu bat jartzea; parrandetara joan ahal izateko garraioa; garraio publiko bat hartu nahi izanez gero, garraio hori nondik nora dabilen jakiteko aplikazio bat egotea...

Gabezia eta hutsune batzuk identifikatu ondoren, hau da, brainstorming-a egin ostean, enpresa ideia zehazteari ekin diogu. Ate gehien zabaltzen dizkigun ideia ikastetxe eta unibertsitateetan inprimagailu zerbitzua jartzearena da. Ideia hau finkatzerako orduan gure ikastetxean oinarritu gara. Normalean herri bakoitzean paper-denda bakarra egoten da. Hori dela eta, gertutasuna eta erosotasuna bilatu nahian, eskola eta unibertsitateetan inprimagailuen zerbitzu eraginkor bat jarri nahiko genuke. Proiektu bideragarria iruditzen zaigu. Gaur egun teknologiak eskuragarri izatea onuragarria da denontzat. Horrenbestez, uste dugu, material honi probetxua aterako litzaiokeela institutu eta antzerako eraikuntzetan. Hala ere, bideragarritasun hori ziurtatzeko inguruko egoeraren hausnarketa sakon bat egingo dugu aurrerago, izan ere, ikasleon baitan dago zerbitzu honen arrakasta.

Enpresa ideia hori aurrera eraman ahal izateko beste enpresa batzuekin elkarlanean jardun beharko dugu. Horretarako, aurreikusten dugu subkontratazio batzuk egin beharko ditugula. Horiek zein diren aurrera zehaztuko du, baina seguruenik inprimagailuak sortzen

dituen enpresa batekin hitzartu beharko dugu, gure lana garraioa eta inprimagailu sarea osatzea izango baita.

Ideia eramangarria dela esango genuke. Kontuan hartu behar dugu lehen pausua besterik ez dela eta etorkizunean aldaketak pairatuko dituela. Proiektuarekin aurrera goazen heinean ikusiko dugu zer moldaketa erantsi eta zer berrikuntza sartu. Gauzak horrela, gure esku dagoen guztia egingo dugu proiektuak bide zuzena har dezan.